

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2022ko OTSAILAREN 10ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2022ko otsailaren 10ean, arratsaldeko 15.30 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira telematikoki eginiko bilkura honetan.

ZINEGOTZIAK: Vicente Garcia Momblona
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Maialen Alonso Labandibar
Aitor Beistegui Fiallegas
Mireia Ruiz Delgado

Bere ezin etorria adierazten dute: Jesus Maria Tejada Cantero

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:


- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2021eko abenduaren 22an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 22 de diciembre de 2021.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. Eudel-ek eginiko gomendioaren onespena, 2022ko ekitaldirako langileen ordain sariei buruzkoa, hala bada/ Aprobación de la recomendación realizada por Eudel, en relación a los incrementos retributivos del ejercicio 2022.**
- 5. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2022 ko 1. Eta 2. Hiruhilabeteko ekarpenak burutzea, hala bada./Aportación económica a Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea correspondiente al 1. y 2. Trimestre del ejercicio 2022.**
- 6. Larraulgo eremu degradatuak berreskuratu eta lehengoratzeko eta azpiegitura berdeak hobetzeko jarduketetarako memoria baloratua idazteko aholkularitza eta laguntza teknikoko zerbitzuen kontratua esleitzea, II. fasea./Adjudicación del contrato de servicios de consultoría y asistencia técnica para la redacción de un memoria valorada para la actuación de recuperación y restauración de áreas**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- degradadas y de mejora de las infraestructuras verdes en Larraul, Fase II.
7. **2021/2022 Ikasturteko Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzen babesean, A.M.P. andreak eginiko diru-laguntza eskaera./Aprobación de la solicitud de ayuda económica realizada por A.M.P. para los cursos de euskara, curso escolar 2021/2022.**
 8. **Erroitz baltzu mugatuari 2021 urteari dagokion diru-laguntzaren kitapena onestea / Aprobación de la liquidación presentada por “Erroitz baltzu mugatua” de la ayuda económica concedida en el ejercicio 2021.**
 9. **Tolosaldeko Atari-aren 2021 urteari dagokion diru-laguntzaren kitapena onestea, hala bada./ Aprobación de la liquidación de la ayuda económica correspondiente a al ejercicio 2021 de “Tolosaldeko Ataria”.**
 10. **Larraulgo udala eta Tolomendi artean, Lakidetza-hitzarmenaren onespena, Tolosaldeko udalerrien informazioa eta komunikazio teknologien dinamizazio eta aholkularitza partekatutako lanaren sustapenerako./ Aprobación del convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Larraul y Tolomendi para la promoción del trabajo compartido de dinamización y asesoramiento de tecnologías de la información y comunicación de los municipios de Tolosaldea.**
 11. **XVII. Aiztondo Klasikoa “Patxi Alkorta memoriala”-ri 2019 urteari dagokion diru-laguntzaren kitapena onestea, hala bada./Aprobación de la liquidación de la ayuda económica correspondiente a XVI. Aiztondo klasikoa” Patxi Alkorta memoriala”.**
 12. **XVIII. Aiztondo Klasikoa “Patxi Alkorta memoriala”-ri 2020 urteari dagokion diru-laguntza burutzea, hala bada./Ayuda económica correspondiente a XVII. Aiztondo klasikoa” Patxi Alkorta memoriala”.**
 13. **Haritz Bertsozale Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada./ Estudio de la solicitud de ayuda económica realizada por Haritz Bertsozale Elkarteak.**
 14. **Otsozabal baserriko hegoaldeko bizitzari loturik dauden Beorte, Lizar-zelai eta andolalde lursailak segregatzeko baimena eskaera./Solicitud de licencia de segregación de los pertenecidos Beorte, Lizar-zelai y Andolalde de la mitad meridional del Caserío Otsozabal.**
 15. **Beste batzuk/Otros.**
 16. **Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO

- ▣ 2021 urteko abenduaren 22an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.

BIGARRENGO PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA


Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 2021 urtean 172/2021etik 173/2021ra Lehendakari Ebazpenak eman direla eta 2022 urtean 01/2022tik 06/2022ra. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARRENGO PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

ZU ETA BIOK	1.503,43
GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA	157,42
MAITE ARANA	39,00
MAITE ARANA	32,00
MAITE ARANA	39,48
MAQUELSA	121,17
EBA ERKIZIA	895,55
MELLIFERA	1.523,44
OLABERRIKO UDALA	450,00
MAITE ORTEGA	412,50
SECURITAS DIRECT	49,61
SECURITAS DIRECT	50,22
LARRAULGO HERRI OSTATUA	60,00
BASAJAUN LIBURUDENDA	221,25
TELEFONICA	157,30
TELEFONICA	99,83
GUREAK MARKETING,S.L.U.	1,16
EUDEL	300,51
KIROLZER	38,10
OSCAR GALINDO	133,10
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.032,17
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	890,42
KIROLZER	35,15
MELLIFERA	1.600,90
NAGORE ZABALA	21,25



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

SGAE	112,13
IBERDROLA	106,08
UR AGENTZIA	27,72
UR AGENTZIA	8,28
IBERDROLA	130,91
IBERDROLA	19,98
IBERDROLA	58,37
IBERDROLA	120,87
MATTIN GIZARTE ABENTURA	182,40
MATTIN GIZARTE ABENTURA	387,20
ORONA	404,89
ITZIAR UZKUDUN	20,80
ZU ETA BOK	1.143,17
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	427,07
TELEFONICA	27,59
MAQUELSA	42,53
SETALDE	182,11
NORTEGAS	633,86
NORTEGAS	149,46
OSCAR GALINDO	121,00
EBA ERKIZIA	1.025,66
GRENKE	129,41
SECURITAS DIRECT	49,61
SECURITAS DIRECT	50,22
TELEFONICA	0,85
TELEFONICA	193,77
TELEFONICA	99,83
BASAJAUN LIBURUDENDA	210,00
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	4.405,43
BERTSOZALE KULTUR ELKARTEA	29,00
HOSTELBERRI	172,50
GUREAK MARKETING, S.L.U	0,54

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengo,


ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **20.538,20** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

LAUGARREN PUNTUA

EUDEL-ek EGINIKO GOMENDIOAREN ONESPENA, 2022KO EKITALDIRAKO LANGILEEN ORDAIN SARIEI BURUZKOA, HALA BADA

Ikusirik Eudel-ek eginiko gomendioa, non ondorengo dioen:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

“ 2022KO ORDAINSARI-IGOEREI BURUZKO INFORMAZIO ZIRKULARRA

Joan den 2021eko abenduaren 29an, **Estatuko 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legea** argitaratu zen BOEn.

Lege horrek, III. tituluko I. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 18. artikuluan, 2022ko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die, eta honako hau arautzen du:

“(…) Bi. 2022. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak ezin izango dute ehuneko 2ko igoera baino handiagoa izan 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, bai langile kopuruari, bai antzinatasunari dagokienez, alderaketaren bi aldietarako homogeneotasuna mantenduz. *Gizarte-ekintzako gastuak, oro har, ezin izango dira handitu 2021ekoen aldean. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak egindako lanagatiko kontraprestazioez bestelako onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, sektore publikoaren zerbitzura dauden langile horien inguruabar pertsonalen ondoriozko premia jakin batzuk asetzea helburu dutenak.”*


Aurrekoa ikusita, 22/2021 Legea indarrean sartu ondoren, eta EUDELeK aurreko ekitaldietako ordainsari-igoerei dagokienez egin duen bezala, egin ditzakeen interpretazioak argitze aldera, egokitzen jotzen da euskal udalei honakoa gomendatzea:

GOMENDIOA

22/2021 Legearen 19 Bi artikuluen edukiari dagokionez, EUDELeK gomendatzen du sektore publikoko langileen ordainsariak handitzea, 2022/01/01etik aurrerako ondorioekin, legez onartutako gehienekoa, hau da, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko %2, konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari, bai antzinatasunari dagokionez, homogeneotasuna mantenduz.

Gomendio honen bidez, EUDELeK lege-agindu horren irismen juridikoa argitu nahi du, horrek guztiak negoziazio kolektiboaren esparruan etorkizunean aurrera egiteko bidea erraztuko duelakoan, UDALHITZ Akordio arautzaile berria lortu ahal izateko.

Era berean, EUDELeK berretsi du garrantzitsua dela “UDALHITZ 2008-2010 Akordioa” bere horretan betetzea, lortutako akordioak benetan betetzean datzalako berme nagusia, eta, gainera, sektoreko akordio berri bat lortzeko legitimazio gisa balio duelako. Ildo horretan, egungo UDALHITZ 2008-2010 araua betetzean egon daitezkeen hutsuneak konpontzeko tresna, azken



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

zirkularretan gogorarazi dizuegun bezala, erakunde bakoitzean gaitutako jarraipen-mahaiak izan beharko litzateke. Gogorarazten dizuegu UDALHITZ 2008-2010 Akordioan gerta daitezkeen ez-betetze puntualak zuzentzeko akordioak erraztera mugatzen dela mahai horien xedea, eta kanpoko gaiak negoziatzeko prozesurik ez irekitzeko gomendatzen da, EUDELen eta sindikatuen UDALHITZ Negoziazio Orokorreko Mahaian baitago aplikazio-eremua.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2022 ekitaldirako, langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek egindako gomendioa bere osotasunean onestea eta aplikatzea. Hau da:

22/2021 Legearen 19 Bi artikulua edukiari dagokionez, EUDELe gomendatzen du sektore publikoko langileen ordainsariak handitzea, 2022/01/01etik aurrerako ondorioekin, legez onartutako gehienekoa, hau da, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko %2, konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari, bai antzinasunari dagokionez, homogeneotasuna mantenduz.

BOSTGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2022KO 1.ETA 2. HIRUHILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA, HALA BADA.

Ikusirik 2022ko urtarrilaren 25ean Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2022 ekitaldiko 1. eta 2. hiru hilabeteetan sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 13.500,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

-Gizarte zerbitzuak: 10.500,00 euro


-Kultura: 3.000,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela 2022 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partidetan.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 13.500,00 eurotako ekarpena burutzea 2022 ekitaldiko 1. eta 2. hiru hilabeteetan sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. 2022 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partiden kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Gizarte zerbitzuak: 10.500,00 euro
- Kultura: 3.000,00 euro

BIGARRENA.- 13.500,00 eurotako gastua onartzea.

SEIGARREN PUNTUA

LARRAULGO EREMU DEGRADATUAK BERRESKURATU ETA LEHENGORATZEKO ETA AZPIEGITURA BERDEAK HOBETZEKO JARDUKETETARAKO MEMORIA BALORATUA IDAZTEKO AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUEN KONTRATUA ESLEITZEA, II FASEA

Ikusita Larraulgo Udalak asmoa duela Gipuzkoako lurralde historikoan degradatutako eremuak leheneratzeko eta berroneratzeko eta azpiegitura berdeak eta erresilientzia hobetzeko proiektu eta jardueretarako diru-laguntzetako deialdira aurkezteko asmoa duela.

Ikusita, aipaturiko diru-laguntzaren oinarrietan aurreikusten dela obra memoria bat aurkeztu behar dela.

Ikusita, Larraulgo Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik aipaturiko lanak egiteko.


Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberan kontratu txiki baten aurrean gaude. *Zerbitzu* kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako..

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: i-ingenia enpresari, Gipuzkoako lurralde historikoan degradatutako eremuak leheneratzeko eta berroneratzeko eta azpiegitura berdeak eta erresilientzia hobetzeko proiektu eta jardueretarako diru-laguntzetako deialdira aurkezteko, obra memoria egiteko kontratua esleitzea 2.695,00€-ko diru kopuruan (BEZa kanpo). 1.0000.226.920.00.01 kontu sailaren kontura "Aholkularitza"

BIGARRENA: Erabaki honen berri i-ingenia enpresari ematea.


ZAZPIGARREN PUNTUA

2021/2022 IKATURTEKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZEN BABESEAN, A.M.P. ANDREAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA

Ikusirik A.M.P. andreak eginiko eskaera, non 2021/2022 ikasturtean Euskarako A2 maila prestatu nahi duela, Tolosako Aitzol euskaltegian, ikastaroaren kostu osoa 279,79 euro dira. Horregatik Larraulgo Udaletxeari diru-laguntza eskaera egiten dio.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: A.M.P. andreak eginiko eskaera onestea, hau da, Tolosako Aitzol euskaltegian burutzeko asmoa duen Euskarako A2 maila lortzeko ikastaroa egiteko diru-laguntza ematea, ondorengoari baldintzaturik:

- Klaseak bakarrik diruz lagunduko dira.
- %85eko asistentzia justifikatu beharko du.

Baldintza hauek betetzen dituela frogatzeko, Larraulgo Udaletxean matrikularen ordainagiria eta egindako maila gainditu duela eta asistentzia ziurtagiria aurkeztu beharko du.

BIGARRENA: Diru-laguntzaren ordainketa ondoren zehazten den modura egitea:

- % 50: Matrikula ordaindu duenaren agiria aurkeztutakoan.
- %50: Ekainean, asistentzia ziurtagiria aurkeztutakoan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri A.M.P. andreari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

ERROITZ BALTZU MUGATUARI 2021 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTEA

Ikusirik, Erroitz baltzu mugatuari 2021. urtean 750,00 eurotako diru-laguntza eman zitzaiola, Aiurri, Beterri-hamaboskaria argitaratzen laguntzeko.

Ikusirik, Erroitz baltzu mugatuak, Aiurri, beterrri-hamaboskariko 2021 urtean izan dituzten gastuen zuritzea aurkeztu duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Erroitz baltzu mugatuak aurkezturiko, Aiurri, beterrri hamaboskariko gastuen kitapenaren onespina.


BEDERATZIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO ATARI-AREN 2021 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldea E.M.-k, hau da, Tolosaldeko Atariak aurkezturiko 2021 urteko ekitaldiko memoria, gastu eta sarreraren xehetasunak eta gastu-agiriak, Talde honek eta Larraulgo Udalaren artean sinatutako Lankidetzaren Hitzarmenean adierazten den bezala.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k aurkezturiko 2021 ekitaldiko memoria, gastu eta sarreraren xehetasunak eta gastu-agiriak onestea.

HAMARGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALA ETA TOLMENDI ARTEAN, LANKIDETZA-HITZARMENAREN ONESPENA, TOLOSALDEKO UDALERRIEN INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN DINAMIZAZIO ETA AHOHKULARITZA PARTEKATUTAKO LANAREN SUSTAPENERAKO

Ikusirik Tolomendi Landa Garapen Elkarteak informazio eta komunikazio Teknologien inguruan aholkularitza eta dinamizazio zerbitzua partekatua sustatzen duela, baliabideen erabilpen eraginkorrago batean laguntzeko eta udalak erakundeak IKT inguruan egunean egoteko.

Ikusirik Larraulgo Udalak interesa duela goian aipaturiko zerbitzu partekatua erabiltzeko. Horretarako dagokion hitzarmena prestatu delarik.

Gaia azterturik, Udaletxe honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udala eta Tolomendi Landa Garapen Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena onestea, Tolosaldeko Udalerrien informazio eta Komunikazio Teknologien dinamizazio eta Aholkularitza partekatutako lanaren sustapenerako.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmenu aipaturiko lankidetzahitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Tolomendi Landa Garapen Elkarteari ematea.


HAMAIKAGARREN PUNTUA

XVII. AIZTONDO KLASIKOA "PATXI ALKORTA MEMORIALA"-ri 2021 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA.

Ikusirik Aiztondo Klasikoa Batzordeak, XVII. Klasikoa "Patxi Alkorta Memoriala" antolatu ondoren, emandako diru-laguntzen kitapena prestatu duela, Larraulgo Udalaren kasuan jarritako diru-kopurua 887,44 euro izan zen eta kostatu zena, Larraulgo kasuan 873,62 euro izan ziren.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Aiztondo Klasikoa Batzordeak XVII. Klasikoak, "Patxi Alkorta Memoriala" antolatu ondoren, aurkezturiko kitapena onesten da.

HAMABIGARREN PUNTUA

XVIII. AIZTONDO KLASIKOA "PATXI ALKORTA MEMORIALA"-ri 2022 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA BURUTZEA, HALA BADA.

Ikusirik Aiztondo Klasikako Batzordeak, XVIII. Aiztondo Klasikoaren "Patxi Alkorta memorialaren" udalek ordaindu behar duen aurrekontua bidali duela, guztira 20.800,00 eurotako dena, martxoaren 13an ospatu dena. Larraulgo Udalarari 887,44 eurotako ekarpena egin dezan eskaera egiten duelarik.

Ikusirik 2022ko Udal aurrekontuetako 422.340.00.02 partidari aurrekontu nahikoa aurreikusten dela gastu honi aurre egiteko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikako Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 887,44 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA: 887,44 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa, udal aurrekontuetako 422.340.00.02. kontu sailaren kargura izan dezan agintzea.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA


HARITUZ BERTSOZALE ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarteak eginiko eskaera, non azaltzen duten helburua dela Tolosaldean bertsozale belaunaldi belaunaldi transmititzea eta horretarako beharrezkoa dutela soldatapeko irakasle bat kontratatzea (koordinazio, Bertso eskola eta Komunikazio lanak egingo dituen), beraz azken honen soldata ordaintzeko diru-laguntza eskaera egiten dute.

Ikusirik 2022ko udal aurrekontuetako 422.334.00.03 partidari 500,00 euro aurreikusi direla.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarteari 500,00 euroko diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarteari jakinaraztea udaletxe honetan emandako diru-laguntza zuritzeko urteko memoria, gastu eta sarreraren kitapena, gizarte segurantzaren eta zerga ogasunean egunean daudela dioen aitortpena eta dagozkion fakturak aurkeztu beharko dituela.

HAMALAU GARREN PUNTUA

OTSOZABAL BASERRIKO HEGOALDEKO BIZITZARI LOTURIK DAUDEN BEORTE, LIZAR-ZELAI ETA ANDOLALDE LURSAILAK SEGREGATZEKO BAIMENA ESKAERA

Ikusirik M.T.A. andreak, Otsozabal baserriko hegoaldeko erdiko (mitad meridional) etxebizitzaren jabeen izenean eginiko eskaera, non azaltzen duen Larraulgo Otsozabal Baserriko hegoaldeko erdiko etxebizitzari loturik dauden "Beorte (Pertenecido 1 y 2) Andola-aldea eta Lizar Celay" lursailak bereizteko (segregatzeko) baimena eskaera egiten duen.


Ikusirik, Tolosako jabetza erregistroaren arabera, Teku Arruti familiaren jabetzakoa den Otsozabal baserriaren hegoaldeko erdiko etxebizitzaren deskripzioa ondorengoa dela:

"Rústica: LOTE SEGUNDO: La mitad meridional del edificio de la CASERIA llamada OCHOZABAL, número cuatro del cuartel del sur de la villa de Larraul con sus pertenecidos. Ocupa un solar de ciento diez y seis metros cuadrados y confina por Norte con la mitad septentrional del mismo caserío, por Este y Sur con terreno adjudicado al lote primero que se vende a Don Amato Jauregui y por Oeste con camino que lo separa de este mismo terreno del lote primero. Sus terrenos pertenecidos son:

Uno: Un trozo de las heredades y terreno contiguos a la casería de ciento veintisiete áreas diez centiáreas de cabida que linda por Norte con terreno de los caseríos Larrola y Otamendi; por Este con los de Elola; por Sur con los de Larrola y por Oeste con otro trozo de este mismo terreno adjudicado al lote primero y terreno de Arzallus y Otamendi.

Dos: Otro trozo de las mismas heredades de ocho áreas noventa y siete centiáreas de caída que linda por Norte con camino que lo separa de otro trozo de este mismo terreno adjudicada al lote primero; por Este con terreno del caserío Larrola, por Sur con los de Larrunbide y por Oeste con los de Larrumbide y expresado camino.

Tres: El terreno castañar hoy parte herbal llamado Andola-aldea confinante por Sur con terreno del Caserío Larrola; por Norte con el de Don Juan Ramón Urretavizcaya; por Oeste con el del caserío Urrizpide y por Este con pertenecidos de esta propiedad, contiene sesenta áreas.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Cuatro: Y el Monte helechal hoy herbal en el término de Lizar Celay que confina por Este con el del caserío Larrola; por Sur con el del caserío Guruceaga; por Oeste con el de Andola-menor y por Norte con camino, contiene veintidós áreas.

INSCRIPCION: Tomo 2.317, libro 17, folio 171, finca 436, inscripción 6ª.

Ikusita segregazio hau onartu ezkeroz, Otsozabal baserria (bi bizitzak) 20.000 m² baina gutxiagorekin gelditzen dela (Larraulgo Arau Subsidiarioak zehazten duen gutxieneko neurria izanik), J.J.S jaunak ondorengo idatzia aurkezten du Larraulgo Udaletxearen aurrean:

.../...

Treku Arruti anai-arrebekin Ochozabal baserriaren erdi partea (mitad meridional) eta berarekin batera Larraulen kokatuak dauden Irumugarrieta, Tranpusulueta eta Achusbita deituriko lursailak erosteko hitzarmena egin dudala.

Idatzi honen bidez Larraulgo udalari adierazi nahi diot erabateko Konpromisoa hartzen dudala aipatutako lursail horiek OCHOZABAL baserriari lotuak (pertenecidos delakoa) geldituko direla salmenta gauzatzean.

Eskatzen dut Treku Arruti anai-arrebak eskatutako segregazioa baimena ematea, helburua gauzatzeko.

.../...


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: M.T. andreak, Otsozabal baserriko hegoaldeko erdi bizitzako (mitad meridional) jabeen izenean eginiko eskaera onestu, hau da, **Larraulgo Otsozabal Baserriko hegoaldeko erdiko (mitad meridional) etxebizitzari loturik dauden “Beorte (Pertenecido 1 y 2) Andola-aldea eta Lizar Celay” lursailak bereizteko (segregatzeko) baimena ematea. Baimen hau ondorengo baldintzari lotuta egongo da:**

Larraulgo Otsozabal Baserriko bi bizitzari gutxienez 20.000m² osatuko duten lursailak loturik gelditu beharko dira, hauek zati ezinak izango direlarik.

Horretarako J.J. jaunak aurkezturiko idatzian dioen arabera, T.A. familiari Otsozabal baserriko hegoaldeko erdiko etxebizitza eta Irumugarrieta, Tranpusulueta eta Achusbita lursailaren zatia erosi



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ondoren Otsozabal baserriko bi bizitzari lotuko dizkiola (pertenecidos izatera pasako direlarik).

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri M.T. andreari ematea.

HAMABOSTGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

ZAZPIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 16.30 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.